

<b>Esperimentazioa Kimikan</b>	<b>20. Praktika 0.1 N HCl-ren prestaketa eta neutralizazioa sodio karbonatoarekin.</b>	<b>E.U.P./U.E.P. Donostia</b>
<p style="text-align: center;"><b><u>Materiala</u></b></p> <p>25 mL-ko bureta 10 mL-ko bureta 100 mL-ko prezipitatu ontziak 1 L-ko matraze aforatua</p> <p style="text-align: center;"><b><u>Azido klorhidriko 0.1 N disoluzioaren prestaketa</u></b></p> <p>1.18 g/mL-ko dentsitatea eta %35-ko purutasuna duen azido klorhidriko disoluzio kontzentratu bat emanik, 0.1 N den azido klorhidriko disoluzio baten 1 L prestatuko dugu. Lehenik, azido kontzentratutik hartu behar dugun bolumena kalkulatu dugu, bolumen hau 1 L-ko matraze aforatu batetara botako dugu eta ondoren ur destilatuarekin matrazea marraraino beteko dugu.</p> <p>0.1 N den HCl disoluzioa prestatu ondoren, sodio karbonatoarekin neutralizatzean, 10-20 mL-ko azido bolumen bat gastatzeko, beharrezko sodio karbonato gramoak kalkulatu ditugu.</p> <p>Sodio karbonato gramo horiek ur destilatuarekin disolbatuko dira eta 3 edo 4 tanta metilo laranja gehituko dizkiegu. Disoluzioak kolore horixka edukiko du.</p> <p style="text-align: center;"><b><u>Disoluzioaren neutralizazioa</u></b></p> <p>Lehen prestatu dugun eta neutralizatu nahi dugun disoluzioarekin bureta homogeneizatu dugu; horretarako, disoluzio kantitate txikiak, bureta zehar pasako ditugu. Ondoren bureta disoluzioarekin beteko dugu eta zerora arrasatu dugu.</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div data-bbox="240 1375 596 1469" style="border: 1px solid black; border-radius: 50%; padding: 5px; text-align: center;">0.1 N HCl disoluzioa</div> <div data-bbox="711 1350 833 1912" style="text-align: center;"> </div> <div data-bbox="268 1682 555 1845" style="border: 1px solid black; border-radius: 50%; padding: 5px; text-align: center;"> <math>\text{Na}_2\text{CO}_3</math> + Ur destilatua + Metilo laranja </div> </div> <div data-bbox="959 1395 1350 1816" style="text-align: center;"> <p>Sodio karbonato disoluzioari, irabiatzen dugun bitartean, HCl disoluzioa pixkanaka botatzen hasiko gara, eta kolorea laranja iluna - gorria denean, gehitzeari utziko diogu. Gastaturiko HCl bolumena neurtuko dugu. Disoluzioaren kolorea gorria balitz, biraketa tartea gainditu dugula esan nahi du, eta neurturiko HCl balioa ez litzateke zuzena izango.</p> </div>		<p style="text-align: center;"><b><u>Erreaktiboak</u></b></p> <p>Azido klorhidriko Sodio karbonatoa Metilo laranja</p>

<b>Esperimentazioa Kimikan</b>	<b>20. Praktika 0.1 N HCl-ren prestaketa eta neutralizazioa sodio karbonatoarekin.</b>	<b>E.U.P./U.E.P. Donostia</b>
------------------------------------	--	-----------------------------------

Neutralizazioa hiru aldiz errepikatuko da, eta kasu bakoitzean kalkulaturako HCl disoluzioaren normalitatearen balioekin batezbesteko bat egingo dugu.

**Erreaktiboak prestatzeko eginiko eragiketak**

- 1 L HCl 0.1 N
- $\text{Na}_2\text{CO}_3$  g [HCl baliokideak =  $\text{Na}_2\text{CO}_3$  baliokideak]

**Emaitza-taula**

V HCl (mL)	g $\text{Na}_2\text{CO}_3$	bal-kop. $\text{Na}_2\text{CO}_3$	N HCl (baliok.-kop./L)
<b>Batezbestekoa</b>			

HCl-ren baliokide-kopurua =  $\text{Na}_2\text{CO}_3$ -ren baliokide-kopurua